

# Microsoft License Terms

Azken eguneratzea: 2016ko abendua

## MICROSOFT-EN SOFTWARE-LIZENTZIAREN BALDINTZAK

### WINDOWS SISTEMA ERAGILEA

---

**ESTATU BATUETAN BIZI BAZARA EDO ZURE ENPRESAREN EGOITZA NAGUSIA ESTATU BATUETAN BADAGO, IRAKURRI 10. ATALEKO ARBITRAJE LOTESLEARI BURUZKO KLAUSULA ETA AUZI KOLEKTIBOAREN EZESPENA. GATAZKEN EBAZPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ESKAINTZEN DUTE.**

### **Eskerrik asko Microsoft aukeratzeagatik.**

Windows softwarea nola eskuratu zenuen gorabehera, lizentzia-kontratu hau (i) zure eta softwarea gailuarekin batera banatzen duen gailu-fabrikatzailearen edo software-instalatzailearen artekoa da; edota (ii), softwarea saltzaile bati erosi badiozu, zure eta Microsoft Corporation-en (edo, bizi zaren tokiaren edo zure enpresaren egoitza nagusia dagoen tokiaren arabera, bere afiliatuetako baten) artekoa da kontratua. Hala, Microsoft-ek edo bere afiliatuetako batek sortutako gailuen kasuan, Microsoft da fabrikatzailea; eta, softwarea Microsoft-en zuzenean erosi baduzu, Microsoft da saltzailea.

Kontratu honek Windows softwarea erabiltzeko dituzun eskubideak eta baldintzak azaltzen ditu. Hitzarmen osoa irakurtzea gomendatzen dugu, softwarearekin batera datorren edozein lizentzia gehigarri eta estekatutako baldintzak barne. Izan ere, baldintza guztiak dira garrantzitsuak eta denek batera osatzen dute zuri dagokizun hitzarmen hau. Estekatutako baldintzak ikusteko, itsatsi (aka.ms/) esteka arakatzailearen leihoan.

**Kontratu hau onartuz gero edo softwarea erabiliz gero, baldintza hauek guztiak onartzen dituzu, eta softwarea aktibatu eta erabili bitartean datu jakin batzuk transmititzeko baimena ematen duzu, 3. ataleko pribatutasun-adierazpenean adierazi bezala. Ez badituzu baldintzak onartzen eta betetzen, ez erabili softwarea edo eginbideak.** Dirua itzultzeko gidalerroak ezagutzeko eta gidalerro horien arabera softwarea edo gailua itzuli eta diru-itzultzea edo kreditua eskuratzeko, jarri harremanetan gailuaren fabrikatzailearekin, instalatzailearekin edo, softwarea zuzenean erosi baduzu, saltzailearekin. Gidalerro horiek bete beharko dituzu. Hala, horiei jarraiki, diru-itzultzea edo kreditua eskuratzeko (halakorik balego), baliteke softwarea instalatuta duen gailu osoa itzuli behar izatea.

## 1. Informazio orokorra.

**a. Aplikazio-eremua.** Kontratu hau hurrengoei dagokie: gailuan aurreinstalatuta zetorren edo saltzaileari erosi diozun eta instalatu duzun Windows softwareari, softwarea zekarren euskarriari (halakorik balego), softwarean dauden letra-tipo, ikono, irudi edo soinu-fitxategiei, eta softwarearen Microsoft eguneratze, bertsio-berritze, gehigarri edo zerbitzuei, salbu eta horiek beste baldintza batzuk badituzte. Ere dagokie Windows-ekin batera datozen eta askotariko funtzioak (hala nola posta elektronikoa, kontaktuak, musika eta argazkiak) eskaintzen dituzten Microsoft-ek garatutako Windows aplikazioei. Kontratu honetan baliteke gailuan erabilgarri ez dituzun eginbide edo zerbitzuei aplikatzen zaizkien baldintzak aipatzea; horiek ez zaizkizu aplikatuko.

**b. Baldintza gehigarriak.** Gailuaren ezaugarrien, konfigurazioaren eta erabileraren arabera, Microsoft-en eta hirugarrenen baldintza gehigarriak aplika dakizkizuke eginbide, zerbitzu edo aplikazio jakin batzuk erabiltzen dituzunean. Horregatik, ziurtatu irakurtzen dituzula.

- (i) Windows aplikazio batzuek lineako zerbitzuetarako sarbide-puntua eskaintzen dute edo lineako zerbitzuetan oinarrituta daude, eta, zenbaitetan, zerbitzu horien erabilera beste baldintza eta pribatutasun-gidalerro batzuek arautzen dute, besteak beste, Microsoft-en zerbitzu-hitzarmenak ([aka.ms/msa](https://aka.ms/msa)). Baldintza eta gidalerro horiek zerbitzua erabiltzeko baldintzetan edo aplikazioaren ezarpenetan ikus ditzakezu, dagokionaren arabera. Baliteke zerbitzuak ez egotea erabilgarri eskualde guztietan.
- (ii) Microsoft-ek, fabrikatzaileak edo instalatzaileak beste aplikazio batzuk sar ditzake gailuan eta horiek beste lizentzia eta pribatutasun-gidalerro batzuen mende egongo dira.
- (iii) Softwareak Adobe Flash Player softwarea dauka eta software hori Adobe Systems Incorporated-en ([aka.ms/adobeflash](https://aka.ms/adobeflash)) lizentzia-baldintzen mende dago. Adobe eta Flash marka erregistratuak edo Adobe Systems Incorporated enpresaren marka erregistratuak dira Estatu Batuetan edota beste herrialde batzuetan.
- (iv) Softwareak hirugarrenen programak izan ditzake, hitzarmen honen bidez edota beren baldintzen bidez lizentzian ematen dizkizugunak. Hirugarrenen programen lizentzia-baldintzak, lege-oharrak eta aitorpenak ikusteko (halakorik balego), joan ([aka.ms/thirdpartynotices](https://aka.ms/thirdpartynotices)) helbidera.

- (v) Windows-ek erabilera pertsonal eta ez komertzialerako ematen dizkizu Word, Excel, PowerPoint eta OneNote, salbu eta horiek erabiltzeko eskubide komertzialak badituzu beste hitzarmen bati jarraiki.

## 2. Instalatzeko eta erabiltzeko eskubideak.

**a. Lizentzia.** Softwarea erabiltzeko lizentzia ematen da, baina ez da saltzen. Hitzarmen honen bidez, baimena ematen dizugu gailuan (lizentziadun gailuan) softwarearen instantzia bat instalatu, exekutatu eta aldi bakoitzean pertsona batek erabiltzeko, baina, horretarako, hitzarmenaren baldintza guztiak bete behar dituzu. Software faltsuak Microsoft softwareekin edo baimendutako iturburuetatik eguneratzeak edo bertsio-berritzeak ez du jatorrizko, eguneratutako nahiz bertsio berritutako bertsioa benetako bihurtzen. Hala, halakorik egiten baduzu, ez duzu softwarea erabiltzeko lizentziarik edukiko.

**b. Gailua.** Kontratu honi dagokionez, "gailua" da softwarea exekuta dezakeen barne-memoriadun hardware-sistema bat (fisikoa zein birtuala). Hardware-partizioak edo blade-ak gailutzat hartzen dira.

**c. Murrizketak.** Fabrikatzaileak edo instalatzaileak eta Microsoft-ek kontratu honetan espresuki ematen ez diren eskubide guztiak gordetzen dituzte, hala nola jabetza intelektualaren legearen mendean dauden eskubideak. Esaterako, lizentzia honek ez dizkizu ondoko eskubideak ematen eta, beraz, ezin duzu:

- (i) softwarearen eginbideak bereiz erabili edo birtualizatu;
- (ii) softwarea argitaratu, kopiatu (baimendutako babeskopiaz gain), alokatu, laga edo norbaiti utzi;
- (iii) softwarea transferitu (kontratu honetan baimenduta dagoen bezala izan ezik);
- (iv) softwarearen murrizketa edo muga teknikoak saihesten saiatu;
- (v) softwarea software-zerbitzari gisa erabili ostatatze komertziala egiteko, softwarea erabilgarri jarri erabiltzaile anitzek aldi berean erabil dezaten sare baten bidez, softwarea zerbitzari batean instalatu eta erabiltzaileei urrunetik sartzen utzi, edo softwarea gailu batean instalatu eta urruneko erabiltzaileentzat soilik gaitu;
- (vi) softwarea alderantzikatu, deskompilatu, desmuntatu edo antzeko ekintzak egiten saiatu, salbu eta hurrengo hauek halakorik baimentzen badute: (a) indarrean

dauden legeek; (b) softwarearekin batera datozen kode irekiko osagaien erabilera arautzen duten lizentzia-baldintzek; edo (c) softwarearekin batera datorren eta honek estekatuta duen GNU Lesser General Public License (GNU Lizentzia Publiko Orokorra eta Murriztuta) lizentziak arautzen duen edozein liburutegitan egindako aldaketak araztu behar badituzu; eta

- (vii) Interneten oinarritutako eginbideak erabiltzean, ezingo dituzu eginbide horiek erabili beste norbaitek horiek erabiltzea oztopatuko lukeen moduan, eta ez zara saiatuko inongo zerbitzu, datu, kontu edo saretan sartzen edo horiek erabiltzen baimenik gabe.

#### **d. Erabilera anitzeko egoerak.**

- (i) **Bertsio anitz.** Softwarea eskuratu zenuenean hainbat bertsio jaso bazenituen (adibidez, 32 biteko eta 64 biteko bertsioak), bertsio horietako bat soilik instala eta aktiba dezakezu aldiko.
- (ii) **Konexio anitzak edo taldekatuak.** Softwarea erabiltzen edo atzitzen duen erabiltzaile edo gailu kopurua murrizteko konexio anitzetarako edo taldekatuetarako hardwareak eta softwareak erabiltzeak ez du beharrezko software-lizentzia kopurua murrizten. Hardware edo software hori erabiltzeko, erabiltzen ari zaren softwarearen instantzia bakoitzeko lizentzia bat behar duzu.
- (iii) **Gailu-konexioak.** Gehienez beste 20 gailuri eman diezaiekezu baimena lizentziadun gailuan instalatutako softwarea atzitzeko, lizentziadun gailuan fitxategi-zerbitzuak, inprimaketa-zerbitzuak, Interneteko informazio-zerbitzuak, Interneteko konexioa partekatzea eta telefonia-zerbitzuak erabiltzea barne. Lizentziadun gailuko softwarea atzitzeko baimena eman diezaiokezu nahi adina gailuri, datuak gailuen artean sinkronizatzeko. Horrek guztiak, hala ere, ez du esan nahi softwarea gailu horietan instalatzeko edo softwarearen funtzio nagusia erabiltzeko (hemen aipatutako eginbideez gain) eskubiderik duzunik.
- (iv) **Ingurune birtualizatuak.** Lizentzia honekin softwarearen instantzia bakarra instala dezakezu gailuan (fisikoan zein birtualean). Softwarea gailu birtual batean baino gehiagotan erabili nahi baduzu, instantzia bakoitzerako lizentzia bat eskuratu behar duzu.
- (v) **Urruneko sarbidea.** Laurogeita hamar egunean behin gehienez, lizentziadun gailua fisikoki erabiltzen duen erabiltzaile bat izendatu behar duzu lizentziadun erabiltzaile gisa. Lizentziadun erabiltzailea lizentziadun gailura sar daiteke beste

gailu batetik urruneko sarbide-teknologiak erabiliz. Beste erabiltzaile batzuk ere (bakoitza aldi batean) lizentziadun gailura sar daitezke beste gailu batzuetatik urruneko sarbide-teknologiak erabiliz. Nolanahi ere, horretarako, software honen edizio bera edo handiagoa exekutatzeko duten lizentziadun gailuak erabili behar dituzte.

(vi) **Urruneko laguntza.** Urruneko laguntza-teknologiak erabil ditzakezu saio aktibo bat partekatzeko softwarearen beste lizentziarik eskuratu beharrik gabe. Urruneko laguntzari esker, erabiltzaile bat beste erabiltzaile baten ordenagailura konekta daiteke zuzenean, batik bat arazoak konpontzeko.

**e. Babeskopia.** Softwarearen kopia bakarra egin dezakezu babeskopia gisa erabiltzeko. Halaber, softwarea software autonomo gisa eskuratu baduzu, babeskopia hori softwarea transferitzeko erabil dezakezu, 4. atalean azaldu bezala.

**3. Pribatutasuna; datuen erabilera onartzea.** Zure pribatutasuna oso garrantzitsua da guretzat. Softwarearen eginbide batzuk erabiltzen dituzenean informazioa bidaltzen edo jasotzen da. Eginbide horietako asko erabiltzaile-interfazean desaktiba daitezke edo, bestela, eginbide horiek ez erabiltzea erabaki dezakezu. Hitzarmen hau onartuz gero eta softwarea erabiliz gero, Microsoft-i baimena ematen diozu informazioa biltzeko, erabiltzeko eta zabaltzeko, Microsoft-en pribatutasun-adierazpenean adierazitakoari jarraiki ([aka.ms/privacy](https://aka.ms/privacy)) eta softwarearen eginbideari lotutako erabiltzaile-interfazean azaldutakoari jarraiki.

**4. Transferentzia.** Atal honetako xedapenak ez dira aplikatzen, baldin eta softwarea bezero gisa erosi baduzu Alemanian edo gune honetan zerrendatutako herrialderen batean: ([aka.ms/transfer](https://aka.ms/transfer)). Kasu horretan, tokian-tokian indarrean dagoen legea bete beharko dute softwarea hirugarrenei transferitzeko zein softwarea erabiltzearen arauak.

**a. Gailuan aurreinstalatuak softwareak.** Softwarea gailuan aurreinstalatuta bazetorren (edota gailuan aurreinstalatuak softwarea bertsio-berritu baduzu), softwarea erabiltzeko lizentzia lizentziadun gailuarekin soilik transferi diezaiokezu zuzenean beste erabiltzaile bati. Transferentziak barne hartu behar ditu softwarea eta, gailuarekin batera jaso bazenuen, produktuaren gakoa daukan benetako Windows etiketa. Onartutako transferentziak osatu aurretik, beste alderdiak kontratu hau softwarearen transferentziari eta erabilerari aplikatzen zaizkiola onartu beharko du.

**b. Software autonomoa.** Softwarea autonomo gisa eskuratu baduzu (edota software autonomoa bertsio-berritu baduzu), zeurea den beste gailu batera transferi dezakezu. Era berean, softwarea beste norbaitena den gailu batera transferi dezakezu, baldin eta (i) softwarearen lizentziadun erabiltzaile nagusia bazara eta (ii) erabiltzaile berriak

kontratuaren baldintzak onartzen baditu. Softwarea transferitzeko, egiten uzten dizugun babeskopia edo softwarea instalatuta zekarren euskarria erabil dezakezu. Softwarea beste gailu batera transferitzen duzun bakoitzean, aurreko gailuko softwarea kendu behar duzu. Ezin duzu softwarea gailuen artean transferitu lizentziak partekatzeko helburuarekin.

**5. Baimendutako softwarea eta aktibazioa.** Softwarea erabiltzeko baimena duzu, baldin eta dagokion lizentzia badaukazu eta softwarea produktuaren gakoaren bidez edo bestelako onartutako metodoen baten bidez behar bezala aktibatu baduzu. Softwarea erabiltzen duzun bitartean Internetera konektatzen zarenean, softwarea Microsoft-ekin edo afiliatuarekin jarriko da harremanetan automatikoki, gailu zehatz batekin erlazionatzeko software hori. Halaber, softwarea eskuz aktiba dezakezu Interneten edo telefonoaren bidez. Batean zein bestean, datu batzuk transferitu egingo dira eta baliteke Internet, telefonoaren eta SMS zerbitzuengatik ordaindu behar izatea. Aktibazioak edo gailuaren osagaiak aldatzen direlako egin beharreko berraktibazioak irauten duen bitartean, softwareak instalatutako instantzia faltsua dela, lizentzia egokirik ez duela edo baimenik gabeko aldaketak dituela atzeman dezake. Aktibazioak huts egiten badu, softwarea bere burua konpontzen saiatuko da. Horretarako, faltsututako Microsoft softwarea benetako Microsoft softwarearekin ordeztzen saiatuko da. Horrez gain, softwarearen lizentzia egokia eskuratzeko abisuak jasoko dituzu. Softwarea aktibatzen baduzu ere, ezin dizugu berretsi softwarea benetakoa dela edo lizentzia egokia duela. Ezin duzu aktibazioa saihestu edo baztertu. Jakiteko softwarea benetakoa den eta lizentzia egokia duzun, joan ([aka.ms/genuine](http://aka.ms/genuine)) helbidera. Eguneratze, laguntza-zerbitzu eta bestelako zerbitzu batzuk benetako Microsoft softwarearen erabiltzaileei soilik eskainiko zaizkie.

**6. Eguneratzeak.** Softwareak sistemaren eta aplikazioen eguneratzeak bilatzen ditu lantzean behin, eta zuretzat deskargatzen eta instalatzen ditu. Eguneratzeak Microsoft-etik edo baimendutako iturrietatik soilik eskura ditzakezu eta baliteke Microsoft-ek sistema eguneratu behar izatea eguneratze horiek eskaini ahal izateko. Hitzarmen hau onartuz gero, eguneratze automatiko horiek inolako jakinarazpen gehigarririk gabe jasotzea onartzen duzu.

**7. Bertsio zaharragoa aldatzeko eskubideak.** Windows Professional bertsio bat aurreinstalatuta duen gailu bat eskuratu baduzu fabrikatzaile edo instalatzaile batengandik, Windows 8.1 Pro edo Windows 7 Professional bertsioa erabil dezakezu, betiere Microsoft-ek aurreko bertsioekiko bateragarritasuna eskaintzen badizu, ([aka.ms/windowslifecycle](http://aka.ms/windowslifecycle)) helbidean azaltzen den bezala. Kontratu hau bertsio zaharragoak erabiltzean ere aplikatzen da. Bertsio zaharragoak beste osagai batzuk baditu, bertsio zaharragoarekin batera datorren kontratuko baldintzak aplikatuko dira osagai horien erabilerari dagokionez. Ez fabrikatzaileak edo instalatzaileak ezta Microsoft ere ez daude behartuta bertsio zaharragoak eskaintzera.

Bertsio zaharragoa bereiz eskuratu behar duzu eta baliteke horren truke zerbait ordaindu behar izatea. Bertsio zaharragoa jatorriz erosi zenuen softwarearen bertsioarekin ordeztu dezakezu nahi duzunean.

**8. Murrizketa geografikoak eta esportazio-murrizketak.** Zure softwarea eskualde geografiko batean erabiltzeko murriztuta badago, softwarea eskualde horretan soilik aktiba dezakezu. Softwareari aplikatu dakizkiokeen lege eta arau nazional zein nazioarteko guztiak ere bete behar dituzu; horien barne daude helmugak, azken erabiltzaileen eta azken erabileraren inguruko murrizketak. Murrizketa geografikoei eta esportazio-murrizketei buruzko informazio gehiago lortzeko, joan ([aka.ms/georestrict](https://aka.ms/georestrict)) eta ([aka.ms/exporting](https://aka.ms/exporting)) helbideetara.

## **9. Laguntza-zerbitzua eta dirua itzultzeko prozedurak.**

**a. Gailuan aurreinstalatuak softwareak.** Softwareei orokorrean dagokionez, jarri harremanetan gailuaren fabrikatzailearekin edo instalatzailearekin erabilgarri dituzun laguntza-zerbitzuak ezagutzeko. Jo softwarearekin batera zetorren laguntza-zenbakira. Microsoft-etik zuzenean jasotako eguneratze eta gehigarriei dagokionez, Microsoft-ek laguntza-zerbitzu mugatuak eskaini ditzake lizentzia egokia duten softwaretarako, ([aka.ms/mssupport](https://aka.ms/mssupport)) helbidean azaltzen den bezala. Dirua itzultzea nahi baduzu, jarri harremanetan fabrikatzailearekin edo instalatzailearekin bere diru-itzultzeari buruzko gidalerroak ezagutzeko. Gidalerro horiek bete beharko dituzu. Hala, horiei jarraiki, baliteke softwarea instalatuta duen gailu osoa itzuli behar izatea, dirua bueltan jasotzeko.

**b. Saltzaileengandik eskuratutako softwareak.** Microsoft-ek laguntza tekniko mugatua eskaintzen du behar bezalako lizentziadun softwarearen kasuan, ([aka.ms/mssupport](https://aka.ms/mssupport)) helbidean azaltzen den bezala. Softwarea saltzaile bati erosi badiuzu eta dirua itzul diezazun nahi baduzu, baina ezin baduzu softwarea erositako tokian eskuratu, jarri harremanetan Microsoft-ekin Microsoft-en dirua itzultzeko gidalerroei buruzko informazioa lortzeko. Ikusi ([aka.ms/msoffices](https://aka.ms/msoffices)) helbidea, edo, Ipar Amerikan bazaude, deitu (800) MICROSOFT telefonora edo ikusi ([aka.ms/nareturns](https://aka.ms/nareturns)) helbidea.

## **10. Arbitraje lotesleari buruzko klausula eta auzi kolektiboaren ezespena, Estatu Batuetan bizi bazara edo zure enpresaren egoitza nagusia Estatu Batuetan badago.**

Espero dugu gatazkarik ez izatea inoiz, baina, izanez gero, zuk eta guk 60 egunetan modu informalean konpontzen saiatuko garela zin egiten dugu. Ezin badugu konpondu, zuk eta guk **American Arbitration Association (“AAA”) elkartearen aurrean Arbitrajeari buruzko Lege Federalari (“FAA”) jarraiki banakako arbitraje loteslea gauzatzea onartzen dugu, eta gatazkek epaileen edo epaimahaien bidez ebazteko eskubideari uko egiten diogu.**

Horren ordeaz, gatazkak arbitro neutro batek ebartziko ditu eta bere erabakia behin betikoa izango da, AEBetako FAAk ezarritako apelatzeko eskubide mugatuari dagokionez izan ezik.

**Ez da onartzen demanda kolektiborik, klase arteko arbitrajirik, fiskalaren ekintza pribatuko demandarik edo bestelako ekintzarik non norbaitek ordezkari-ahalmenarekin jarduten duen. Halaber, ez da onartzen hainbat banako prozedura konbinatzea alderdi guztien baimenik gabe.** "Gu", "gure" eta "guri" Microsoft, gailuaren fabrikatzailea eta softwarearen instalatzailea dira.

**a. Estalitako gatazkak (gatazka guztiak IPari buruzkoak salbu).** "Gatazka" terminoa ulertu bezain zabala da. Zure eta fabrikatzailearen edo instalatzailearen zein zure eta Microsoft-en arteko softwareari, prezioari edo kontratuari buruzko edozein erreklamazio eta eztabaida hartzen ditu barne ezein legezko teoriaren pean. **Teoria horiek kontratua, bermea, kalteak, estatutuak eta erregulazioak izan daitezke, baina ez zure, zure lizentzia-emaileen, gure edo gure lizentzia-emaileen jabetza intelektualaren eskubideei dagozkienak.**

**b. Lehenik eta behin, bidali gatazka-jakinarazpen bat.** Gatazka bat badaukazu eta gure bezeroentzako arreta-zerbitzuko ordezkariak ezin badute konpondu, bidali gatazka-jakinarazpena bat Estatu Batuetako posta-zerbitzuaren bidez fabrikatzaileari edo instalatzaileari, ATTN: LEGAL DEPARTMENT (lege-saila) sailera zuzenduta. Gatazka Microsoft-ekin bada, bidali gatazka-jakinarazpena helbide honetara: Microsoft Corporation, ATTN: LCA ARBITRATION, One Microsoft Way, Redmond, WA 98052-6399. Jakinarazpenean adierazi zure izena, helbidea, harremanetarako informazioa, arazoa eta zer konponbide eskatzen duzun. Inprimaki bat dago erabilgarri (aka.ms/disputeform) helbidean. Guk gatazkaren bat badugu zurekin, gauza bera egingo dugu. Gatazka ez bada 60 eguneko epean konpontzen, zuk zein guk arbitrajea has dezakegu.

**c. Kantitate txikiko erreklamazioetarako auzitegiaren bidea.** Gatazka-jakinarazpen bat bidali beharrean, auzitegiaren eskakizunak betetzen badituzu, auzitara eraman gaitzakezu kantitate txikiko erreklamazioetarako auzitegian bizi zaren edo zure enpresaren egoitza nagusiaren eskualdean edo, gatazka Microsoft-ekin bada, gure egoitza nagusiari dagokion eskualdean, hau da, King County-n (Washington AEB). Badakigu ez dela derrigorrezkoa, baina, kantitate txikiko erreklamazioetarako auzitegiara jo aurretik, eskertuko genizuke gatazka-jakinarazpen bat bidaliko bazenigu eta 60 egun emango bazenizkigu hura konpontzen saiatzeko.

**d. Arbitraje-prozesua.** AAA elkarteak bere arbitraje komertzialaren arauak jarraiki gauzatuko ditu arbitrajeak edo, banakoa bazara eta softwarea pertsonalki edo etxean erabiltzen baduzu edo gatazkaren balioa 75.000 \$ USD edo gutxiagokoa bada (zu banakoa zaren edo softwarea nola erabiltzen duzun kontuan hartu gabe), bere kontsumitzaileen

arbitraje-arauei jarraiki. Informazio gehiago lortzeko, joan ([aka.ms/adr](http://aka.ms/adr)) helbidera edo deitu 1-800-778-7879 telefonora. Arbitraje bat hasteko, bidali ([aka.ms/arbitration](http://aka.ms/arbitration)) helbidean erabilgarri dagoen inprimakia AAA elkarteari, eta bidali mezuaren kopia bat fabrikatzaileari edo instalatzaileari (edo, gatazka Microsoft-ekin bada, Microsoft-i). 25.000 \$ USD edo gutxiagoko balioa duten gatazketan, bistak telefono bidezkoak izango dira, salbu eta arbitroak presentziazko bista egiteko arrazoiak aurkitzen baditu. Presentziazko bistak bizi zaren edo zure enpresaren egoitza nagusiaren eskualdean, edo, gatazka Microsoft-ekin baduzu, gure egoitza nagusiaren eskualdean, hau da, King County-n (Washington), izango dira. Zure esku uzten dugu hori. Epaitegi batean emango lizkizuketen kalte-ordain berak emango dizkizu arbitro batek banako gisa. Hala, arbitroak kalte-ordain deklaratioak edo legezkoak eman diezazkizuke banako gisa, zure banako erreklamazioaren ordainetan.

#### **e.Arbitraje-kostuak eta ordainketak.**

- (i) **75.000 USD edo gutxiagoko balioa duten gatazkek.** Fabrikatzaileak edo instalatzaileak (edo, gatazka Microsoft-ekin baduzu, Microsoft-ek) ahal bezain laster itzuliko dizkizu gatazka aurkeztearen kostuak, eta AAA elkartearen eta arbitroaren kostuak eta gastuak ordainduko ditu. Gure idatzizko azken akordio-eskaintza ukatzen baduzu arbitroa izendatu aurretik, gatazka arbitroaren erabakira ("erabakia") zuzenean eramango da; eta, arbitroak idatzizko azken eskaintza baino gehiago ematea erabakitzen badu, fabrikatzaileak edo instalatzaileak (edo, gatazka Microsoft-ekin baduzu, Microsoft-ek) hiru pizgarri emango dizkizu: (1) erabakian agindutakoa edo 1.000 USD ordaindu; (2) abokatuaren kostu zentzuduna ordaindu, halakorik balego; eta (3) abokatuak arbitrajeko erreklamazioa ikertzean, prestatzean eta gauzatzean izandako gastu guztiak itzuli (lekuko adituen kostuak barne). Arbitroak zehaztuko ditu zenbatekoak, zu eta gu akordio batera heldu ezean.
- (ii) **75.000 USD baino gehiagoko balioa duten gatazkek.** AAA elkartearen arauak ezarriko dute ordainketa nola egingo den, arbitrajea aurkeztearen kostuei eta AAA elkartearen eta arbitroaren kostuei eta gastuei dagokienez.
- (iii) **Edozein baliotako gatazkek.** Arbitraje bat hasten baduzu, ez dizkizugu eskatuko AAA elkarteari edo arbitroari dagozkion kostuak eta gastuak, ez eta itzuli dizkizugun prozesu legala hastearen kostuak ere, salbu eta arbitroak arbitrajea beharrezkoa ez dela edo helburu desegokia duela erabakitzen badu. Arbitraje bat hasten badugu, guk ordainduko ditugu aurkeztearen kostuak eta AAA elkartearen eta arbitroaren kostuak eta gastuak. Ez dizkizugu inolako arbitrajetan abokatuaren

kostuak eta gastuak eskatuko. Kostuak eta gastuak ez dira kontuan hartzen gatazkaren balioa zehazterakoan.

**f.Urtebete igaro aurretik aurkezteko beharra.** Zuk eta guk erreklamazio edo gatazkak urtebeteko epean aurkeztu behar ditugu (aurkeztu ahal zenetik zenbatzen hasita), kantitate gutxiko erreklamaziotarako auzitegi batean edo arbitraje bidez (jabetza intelektualeko gatazkak izan ezik; horretarako, ikusi 10.a. atala). Bestela, behin betiko baztertuko dira.

**g.Bereizgarritasuna.** Demanda kolektiboko ezespina legez kanpokoa dela edo betearazi ezin dela zehazten bada gatazkaren zati guztiekiko edo batzuekiko, atal horiek ez dira arbitratuko, baina auzitara eramango dira, gainerako arbitraje-elementuekin batera. 10. artikuluko beste xedapenen bat legez kontrakoa edo aplikaezina dela erabakiko balitz, xedapen hori bereizi egingo da eta 10. atalaren gainerako xedapenak aplikatuko dira.

**h. Gatazka AAA elkartearen arauekin.** Kontratu honen eta AAA elkartearen arbitraje komertzialaren arauen edo bezeroen arbitrajearen arauen arteko gatazkarik badago, kontratu hau gailentzen da.

**i.Microsoft alderdi gisa edo hirugarren onuradun gisa.** Microsoft bada gailuaren fabrikatzailea edo softwarea saltzaile batengandik eskuratu baduzu, Microsoft alderdi bat da kontratu honetan. Bestela, Microsoft ez da kontratu honetako alderdia, baina fabrikatzailearen edo instalatzailearen kontratuko hirugarren onuraduna da, gatazkak negoziazio informalen eta arbitrajearen bidez ebazteko.

**11. Indarrean dagoen legea.** Bizi zaren edo zure enpresak egoitza nagusia duen estatuko edo herrialdeko legeen arabera arautuko dira softwareari, prezioari edo hitzarmen honi buruzko erreklamazio eta gatazka guztiak, hurrengoak barne harturik: kontratua ez betetzeagatiko erreklamazioak eta kontsumitzailea babesteko legeen mende egindako erreklamazioak; bidegabeko lehiaketa-legeak; berme-lege inplizituak, eta bidegabeki aberastea eta kalteak, lege-oinarrien gatazkak gorabehera. Ameriketako Estatu Batuetan, FAAk arbitrajearekin lotutako xedapen guztiak arautzen ditu.

**12.Kontsumitzaileen eskubideak; aldaerak eskualdearen arabera.** Kontratu honek zenbait legeko eskubide azaltzen ditu. Baliteke bestelako eskubideak izatea, kontsumitzaile-legeak kasu, zure estatuko edo herrialdeko legeen arabera. Halaber, baliteke softwarea erosi zenuen aldearekiko eskubideak izatea. Kontratu honek ez ditu eskubide horiek aldatzen, zure estatuko edo herrialdeko legeak hori onartzen ez badute. Adibidez, softwarea ondoko eskualdeetako batean eskuratu baduzu edo derrigorrezko legeak badaude, xedapen hauek aplikatuko zaizkizu:

**a. Australia.** "Berme mugatuari" egindako erreferentziak Microsoft-ek, fabrikatzaileak edo instalatzaileak eskaintako berme esplizituari dagozkio. Berme hori legezko beste eskubide eta konponbidez aparte ematen da eta barne ditu Australiako kontsumitzaileen legezko bermeetako eskubide eta konponbideak.

Paragrafo honetan, "ondasuna" Microsoft-en, fabrikatzailean edo instalatzailearen berme esplizitua daukan softwarea da. Gure ondasunek Australiako Kontsumitzaileen Legetik kanpo har ezin daitezken garantiak dituzte. Softwarea guztiz hondatzen bada edo bestelako zentzuzko galera edo kalterik gertatzen bazaio, ordezeko bat jasotzeko edo dirua itzularazteko eskubidea duzu. Halaber, ondasunak konponarazteko edo ordezarazteko eskubidea duzu, ondasunen kalitatea ona ez bada eta hondatzea ez bada erabatekoa.

**b. Kanada.** Gailuan eguneratzeak jasotzeari uzteko, desaktibatu Interneteko konexioa. Internetera berriro konektatzen zarenean, softwareak eguneratzeak bilatu eta instalatzeari berrekingo dio.

**c. Europar Batasuna.** 13.d(i) azpiataleko erabilera akademikorako murrizketak ez dira aplikatzen gune honetan zerrendatzen diren jurisdikzioetan: ([aka.ms/academicuse](https://aka.ms/academicuse)).

**d. Alemania eta Austria.**

(i) **Bermea.** Softwarearen lizentzia egokia bada, softwarearekin batera jasotako Microsoft materialetan azaldu bezala funtzionatuko du softwareak. Nolanahi ere, fabrikatzaileak edo instalatzaileak eta Microsoft-ek ez dute beste kontratuzko garantiarik ematen lizentziadun softwareari dagokionez.

(ii) **Erantzukizunaren muga.** Nahitako jokabidea edo axolagabekeria larria ematen denean, produktuaren erantzukizun-agirian oinarritutako erreklamazioetan edota norbait hiltzen edo zauritzen denean, fabrikatzailea, instalatzailea edo Microsoft da erantzule, legeari jarraiki.

Aurrekoaren harira, fabrikatzaileari, instalatzaileari edo Microsoft-i axolagabekeria arina soilik egotziko zaio kontratuzko betekizun materialak apurtzen badituzte. Hala, betekizun horiek kontratu honen funtzionamendu egokia errazten dute, eta horiek urratzeak kontratuaren helburua eta alderdiaren esana nahiz fidagarritasuna ("betebehar kardinalak") arriskuan jarriko lituzke. Axolagabekeria arina beste kausa baten ondorio bada, fabrikatzailea, instalatzailea eta Microsoft ez dira erantzule izango.

**e. Beste eskualde batzuk.** Eskualdeen araberako aldaeren zerrrenda eguneratua ikusteko, joan ([aka.ms/variations](http://aka.ms/variations)) helbidera.

### 13. Ohar gehigarriak.

**a. Sareak, datuak eta Interneten erabilera.** Softwarearen zenbait eginbidek eta softwarearen bidez atzitzen diren zenbait zerbitzuek gailua Internetera konektatuta egotea eskatzen dute. Internetera sartzeko eta hura erabiltzeko baldintzak (tarifak barne) operadorearekin edo Internet hornitzailearekin duzun kontratuaren zehaztapenen araberakoak dira. Softwarearen eginbide batzuek Internetera modu eraginkorragoan sartzen laguntzen dizute, baina baliteke softwarearen erabilera-kalkuluak eta zerbitzu-hornitzailearenak ez etortzea bat. Zure ardura da (i) planen eta kontratuen baldintzak ulertu eta betetzea, eta zure erantzukizuna dira (ii) sareetan (publikoak/irekiak barne) sartzeagatik edo horiek erabiltzaileagatik gerta daitezkeen arazoak. Softwarea sareetara konektatzeko eta sareon sarbide-informazioa partekatzeke erabil dezakezu, horretarako baimena baduzu.

**b. H.264/AVC eta MPEG-4 ikusizko estandarrak eta VC-1 bideo estandarrak.** Softwareak H.264/MPEG-4 AVC edota VC-1 deskodetze-teknologia ekar dezake. MPEG LA, L.L.C.-k ohar hau eskatzen du:

PRODUKTU HONEN LIZENTZIA AVC, VC-1 ETA MPEG-4 PART 2 VISUAL-EN PATENTE-ZORROAREN LIZENTZIAK KONTUAN HARTUZ ONARTZEN DA KONTSUMITZAILEAREN BERAREN ERABILERARAKO ETA ERABILERA EZ KOMERTZIALERAKO (i) BIDEOA KODETZEKO GOIAN AIPATUTAKO ESTANDARREN ARABERA ("BIDEO-ESTANDARRAK") EDOTA (ii) AVC, VC-1 ETA MPEG-4 PART 2 BIDEOA DESKODETZEKO, BALDIN ETA NORBERAREN ERABILERA EDO ERABILERA EZ KOMERTZIAL BATEAN NAHASITA DAGOEN KONTSUMITZAILE BATEK KODETU BADU, EDOTA BIDEO HORI HORNITZEKO LIZENTZIA DUEN HORNITZAILE BATEN BIDEZ ESKURATU BADA. LIZENTZIAK EZ DIRA BESTE ERABILERETARAKO EMANGO EDO KONTUAN HARTUKO. MPEG LA, L.L.C.-RI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO LORTZEKO, JOAN ([AKA.MS/MPEGLA](http://AKA.MS/MPEGLA)) HELBIDERA.

**c. Malwareen aurkako babesa.** Microsoft-entzat oso garrantzitsua da zure gailua malwareetatik babestea. Ez badago bestelako babesik instalatuta edo zegoena iraungi bada, softwareak malwareen aurkako babesa instalatuko du. Horretarako, malwareen aurkako beste software batzuk desgaitu edo kendu beharko dira.

**d. Eskubide mugatundunbertsioak.** Eskuratu duzun softwarearen bertsioak erabilera jakin edo mugatu bat badu helburu gisa, softwarea erabilera horrekin erabili ahalko duzu

soilik. Ezin dituzu softwarearen bertsio horiek helburu komertzialetarako, irabazi-asmorik gabeko jardueretarako edo dirua irabazteko jardueretarako erabili.

(i) **Erabilera akademikoa.** Erabilera akademikoa aitor diezazugun, hezkuntza-erakunde bateko ikasle, irakasle edo langile izan behar duzu lizentzia erosten duzun unean.

(ii) **Ebaluaziozko erabilera.** Softwarea ebaluatzeko, hau da, probak edo frogantzak egiteko, erabiliko baduzu, ezin duzu softwarea saldu. Era berean, ezin duzu softwarea exekuzio-ingurune ireki batean erabili eta ezin duzu ebaluazio-aldia amaitu ostean erabili. Hitzarmen honetan aurkakoa adierazten ez bada, **ebaluazio-softwarea "BERE HORRETAN" ematen da eta bertsio horiei ez zaie aplikatuko beste bermerik (Berme mugatua ere kontuan hartuta), ez berariazkorik ez impliziturik.**

(iii) **NFR.** Ezin duzu "NFR" edo "Not for Resale" (ez birsaltzeko) etiketa duen softwarearik saldu.

(iv) **Aurrebista.** Microsoft-ek eskaintzen dituen argitaratu aurreko bertsioak (besteak beste, Preview, Insider edo Beta) erabil ditzakezu. Aurrebistak erabil ditzakezu softwarearen hitzarmena irautsi arte, baldin eta hitzarmen honen baldintzak betetzen badituzun. Kontuan izan aurrebistak esperimentalak direla eta balitekeela bertsio komertzialarekin bat ez etortzea. Hitzarmen honetan aurkakoa adierazten ez bada, **aurrebistak "BERE HORRETAN" ematen dira eta bertsio horiei ez zaie aplikatuko beste bermerik (Berme mugatua ere kontuan hartuta), ez berariazkorik ez impliziturik. Aurrebistak gailuan instalatu ostean, baliteke gailuaren bermea bertan behera uztea edo horri eragitea; hori dela kausa, ezingo duzu erabili fabrikatzailearen edo sare-operadorearen laguntza-zerbitzua aplikagarria bada.** Microsoft-ek ez du erantzukizunik izango gertatutako kalteengatik. Halaber, Microsoft-ek ez du eskainiko aurrebistetarako laguntza-zerbitzurik. Microsoft-i iruzkinak, iradokizunak edo antzeko oharrak bidaltzen badiozu aurrebistei buruz ("bidalketa"), bidalketa hori edozein modutan eta edozein helbururekin erabiltzeko eskubidea ematen diozu Microsoft-i eta bere bazkideei.

**14. Kontratuaren osotasuna.** Kontratu hau (eta horrekin batera, softwarearekin datozen paperean inprimatutako lizentziak, edo software-gehigarriak, eguneratzeak eta zerbitzuak - fabrikatzaileak edo instalatzaileak, edo Microsoft-ek eskainitakoak-, horiek erabiltzen badituzu) eta kontratuan adierazitako web-esteketako baldintzak dira softwarearen, gehigarrien, eguneratzeen eta zerbitzuen kontratu osoa (fabrikatzaileak, instalatzaileak edo Microsoft-ek bestelako baldintzak ematen ez baditu gehigarri, eguneratze edo zerbitzu

horietarako). Hitzarmen hau irakurtzeko softwarea exekutatzeko ari den bitartean, joan ([aka.ms/useterms](http://aka.ms/useterms)) helbidera edo joan softwareko "Ezarpenak - Sistema - Honi buruz" atalera. Horrez gain, baldintzak irakur ditzakezu kontratu honetako estekatan. Horretarako, URLak arakatzaillearen helbide-barran idatzi eta hori egitea onartu behar duzu. Softwarea edo zerbitzuak erabili aurretik baldintzak (estekatutakoak barne) irakurriko dituzula zein egiten duzu. Softwarea edo zerbitzuak erabiliz gero, kontratu hau eta estekatutako baldintzak onartzen dituzula baieztatzen duzu. Halaber, kontratu honetan informazioa eskaintzen duten estekak daude. Oharrak eta baldintza lotesleak dituzten estekak hauek dira:

- Microsoft-en pribatutasun-adierazpena ([aka.ms/privacy](http://aka.ms/privacy))
- Microsoft-en zerbitzu-hitzarmena ([aka.ms/msa](http://aka.ms/msa))
- Adobe Flash Player-en lizentzia-baldintzak ([aka.ms/adobeflash](http://aka.ms/adobeflash))

\*\*\*\*\*

## **BERME MUGATUA**

Gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak bermatzen du softwarearekin batera jasotako Microsoft-en materialetan azaldu bezala funtzionatuko duela softwareak, bere lizentzia egokia bada. Eguneratzeak edo gehigarriak Microsoft-ek zuzenean ematen badizkizu berme mugatuaren 90 eguneko epearen barnean, Microsoft-ek eskainiko dizu horien berme mugatua. Berme mugatu honek ez ditu estaltzen zuk eragindako arazoak edo argibideak ez jarraitzeagatik sortutakoak, ezta fabrikatzailearen, instalatzailearen edo Microsoft-en zentzuzko kontrolaz kanpo dauden ekintzek sortutako arazoak ere. Berme mugatua lehenengo erabiltzaileak softwarea eskuratzen duenean hasten da eta 90 eguneko iraupena du. Ere bai estalita daude fabrikatzaileak, instalatzaileak edo Microsoft-ek 90 egun horietan eman diezazkizukeen beste gehigarriak, eguneratzeak eta ordezkatzeko softwareak, baina soilik 90 eguneko epe horri geratzen zaionerako edo 30 egunetarako, luzeena dena. Softwarea transferitzeak ez du berme mugatuaren epea luzatzen.

Fabrikatzaileak edo instalatzaileak eta Microsoft-ek ez dute ematen beste berme, garantia edo baldintza espliziturik. **Fabrikatzaileak edo instalatzaileak eta Microsoft-ek kanpoan uzten dituzte berme eta baldintza inplizitu guztiak; besteak beste, merkaturagarri izatearenak, xede jakin baterako egokia izatearena eta araurik ez urratzearenak. Tokiko legeak ez badu onartzen berme inplizituak kanpoan uztea, berme edo baldintza inplizituak berme mugatuaren epean soilik egongo dira indarrean eta tokiko legeak baimendutako heinera egongo dira mugatuta. Tokiko legeak berme mugatua luzeagoa izan dadin eskatzen badu**

**(hitzarmen honek dioena kontuan hartu gabe), epe luzeago hori aplikatuko da, baina hitzarmen honek onartzen dituen konponbideak soilik jaso ahal izango dituzu.**

Fabrikatzaileak, instalatzaileak edo Microsoft-ek bere berme mugatua betetzen ez badu, aukeran dituen modu hauetako batean jokatu beharko du: (i) softwarea doan konpondu edo ordeztu edo (ii) softwarea (edo, hala nahi badu, softwarea aurreinstalatuta zekarren gailua) itzultzea onartu ordaindutakoa itzulita, zerbait ordaindu bada. Gehigarriak, eguneratzeak eta ordeztako softwareak ere konpon edo ordeztuz fabrikatzaileak edo instalatzaileak (edo Microsoft-ek, bertatik zuzenean eskuratu badituzu), edo haien truke ordaindutako diru-kopurua itzul diezazuke, zerbait ordaindu baduzu. **Horiexek dira berme mugatua urratzeagatik dauden konponbide bakarrak.** Berme mugatu honek legezko eskubide zehatzak ematen dizkizu, baina, horiez gain, estatuaren edo herrialdearen araberrako beste eskubide batzuk ere izan ditzakezu.

**Fabrikatzaileak, instalatzaileak edo Microsoft-ek eskain diezazkizuketen konponketez, ordezkapenez edo diru-itzultzeez aparte, ez duzu kalte-ordainik eskuratuko berme mugatu honi, kontratu honen ezein atali eta ezein teoria, kalte edo konponbideri jarraiki. Konponbide horien barruan hartzen dira etekinak galtzeagatik kalteak, kalte zuzenak, ondoriozkoak, bereziak, zeharkakoak edo ezbeharrekoak.** Hitzarmen honetako kalteen baztertzeak eta konponbide-mugak aplikatuko dira nahiz eta konpontzeak, ordezteak edo diru-itzultzeak izandako galerak guztiz ez konpentsatu, nahiz eta fabrikatzaileak, instalatzaileak edo Microsoft-ek kalte horiek gerta zitezkeela jakin edo jakin behar izan, eta nahiz eta konponbideak bere oinarritzko helburua ez bete. Zenbait estatuk edo herrialdek ez dute onartzen ezbeharrezko, ondoriozko edo bestelako kalteak kanpo uztea edo mugatzea; beraz, baliteke muga horiek edo baztertzeak zuri ez aplikatzea. **Tokiko legeak fabrikatzaileak, instalatzaileak edo Microsoft-ek bestelako kalte-ordainak ordaintzea baimentzen badu, nahiz eta kontratu honek ez, ezingo duzu softwarearen truke ordaindu duzuna baino gehiago berreskuratu (edo 50 \$ USD, softwarea doan eskuratu baduzu).**

### **BERMEAREN PROZEDURAK**

Zerbitzua edo dirua itzul diezazuten, erosketa-agiriaren kopia bat erakutsi beharko duzu, eta fabrikatzailearen edo instalatzailearen dirua itzultzeko gidalerroak bete beharko dituzu. Gidalerro horiei jarraiki, baliteke softwarea eta hura instalatuta daukan gailua osorik itzuli behar izatea. Are gehiago, softwarea gailuan bazetorren, gailuan itsatsita egon beharko du produktu-gakoa duen jatorrizko autentikotasun-ziurtagiriaren etiketak.

Softwarearen berme-zerbitzua nola eskuratu jakiteko, jarri harremanetan fabrikatzailearekin edo instalatzailearekin gailuarekin batera emandako helbidean edo doako telefonoan. Microsoft bada gailuaren fabrikatzailea edo softwarea saltzaile batengandik eskuratu baduzu, jarri Microsoft-ekin harremanetan:

1. Estatu Batuak eta Kanada. Berme-zerbitzua jaso edo Estatu Batuetan edo Kanadan erositako softwarearen dirua itzul diezazuten eskatzeko, jarri harremanetan Microsoft-ekin modu hauetakoren baten bidez: telefono bidez: (800) MICROSOFT; posta bidez: Microsoft Customer Service and Support, One Microsoft Way, Redmond, WA 98052-6399; edo joan ([aka.ms/nareturns](http://aka.ms/nareturns)) helbidera.
2. Europa, Ekialde Hurbila eta Afrika. Softwarea European, Ekialde Hurbilean edo Afrikan eskuratu baduzu, jarri harremanetan Microsoft-ekin helbide honetan: Microsoft Ireland Operations Limited, Customer Care Centre, Atrium Building Block B, Carmanhall Road, Sandyford Industrial Estate, Dublin 18, Ireland; edo zure herrialdean zerbitzua ematen duen Microsoft afiliatu batekin ([aka.ms/msoffices](http://aka.ms/msoffices)).
3. Australia. Software Australian eskuratu baduzu, jarri harremanetan Microsoft-ekin erreklamazioa egiteko, telefono honetan: 13 20 58; edo helbide honetan: Microsoft Pty Ltd, 1 Epping Road, North Ryde NSW 2113 Australia.
4. Beste herrialde batzuk. Softwarea beste herrialde batean eskuratu baduzu, jarri harremanetan herrialdean zerbitzua ematen duen Microsoft-en afiliatuarekin ([aka.ms/msoffices](http://aka.ms/msoffices)).

\*\*\*\*\*

### **[Mugikorretarako SKUaren berme-hornitzea]**

#### **BERMERIK EZ**

GAILUKO SOFTWAREA (APLIKAZIOAK BARNE) "BERE HORRETAN" EMATEN DA LIZENTZIAN. BIZI ZAREN TOKIKO LEGEEK HALA ONARTZEN DUTEN NEURRIAN, SOFTWAREAREN KALITATETIK EDO ERRENDIMENDUTIK SOR LITEZKEEN ARRISKU GUZTIAK ZEURE GAIN HARTZEN DITUZU. SOFTWAREAK AKATSAK BADITU, ZUK ORDAINDU BEHARKO DITUZU BEHARREZKO ZERBITZU EDO KONPONKETA GUZTIAK. FABRIKATZAILEAK ETA MICROSOFT-EK EZ DUTE EMATEN INOLAKO BERME, GARANTIA EDO BALDINTZARIK SOFTWARERAKO. ZURE HERRIALDEKO LEGEEK ONARTZEN DUTEN NEURRIAN, FABRIKATZAILEAK ETA MICROSOFT-EK KANPOAN UZTEN DITUZTE BERME ETA BALDINTZA INPLIZITU GUZTIAK, MERKATURAGARRI IZATEARENAK, KALITATEARENAK, XEDE JAKIN BATERAKO EGOKIA IZATEARENAK ETA ARAURIK EZ URRATZEARENAK BARNE. ZURE HERRIALDEKO LEGEEN ARABERA, BALITEKE KONTSUMITZAILEEN ESKUBIDE EDO LEGEZKO BERME GEHIGARRIAK IZATEA, ETA BALDINTZA HAUEK EZIN DITUZTE ESKUBIDE ETA BERME HORIEK ALDATU.

NOLANAHI ERE, BIZI ZAREN TOKIKO LEGEEK BERME, GARANTIA EDO BALDINTZA BAT EZARTZEN BADUTE, 90 EGUNEKO BALIOZKOTASUNA IZANGO DU SOILIK, ERABILTZAILEAK SOFTWAREA

LEHENBIZIKO ALDIZ ESKURATZEN DUENETIK HASITA. FABRIKATZAILEAK EDO MICROSOFT-EK BERME, GARANTIA EDO BALDINTZA HORI URRATZEN BADU, FABRIKATZAILEAK EDO MICROSOFT-EK (i) SOFTWAREA DOAN KONPONDU EDO ORDEZTUKO DIZU, EDO (ii) SOFTWAREAREN EDO –BERAK NAHI BADU– SOFTWAREA INSTALATUTA DUEN GAILUAREN TRUKE ORDAINDUTAKOA ITZULIKO DIZU, ZERBAIT ORDAINDU BADUZU. HORIEK DIRA BIZI ZAREN TOKIKO LEGEEK EZARTZEN DITUZTEN KONPONBIDE BAKARRAK BERMEAK, GARANTIAK EDO BALDINTZAK URRATZEAREN ORDAINETAN.

BIZI ZAREN TOKIKO LEGEEK DEBEKATZEN DUTEN NEURRIAN, KALTE-ORDAINAK JASOTZEKO OINARRIA IZAN ARREN, GEHIENEZ ERE SOFTWAREAREN TRUKE ORDAINDUTAKOA ITZULIKO DIZU FABRIKATZAILEAK EDO MICROSOFT-EK, EDO, SOFTWAREA DOAN ESKURATU BADUZU, GEHIENEZ ERE 50 \$ USD. EZ DUZU IZANGO KALTE-ORDAINIK EDO KONPONBIDERIK JASOTZEKO ESKUBIDERIK HITZARMEN HONEN EZEIN ATALEN PEAN EDO EDOZEIN LEGEZKO TEORIAREN PEAN, BARNE HARTURIK ETEKINAK GALTZEAGATIKO KALTEAK, KALTE ZUZENAK, ONDORIOZKOAK, BEREZIAK, ZEHARKAKOAK ETA EZBEHARREKO KALTEAK. MUGA HORI APLIKATZEN DA (I) HITZARMEN HONETAN, SOFTWAREAN (APLIKAZIOAK BARNE), GAILUAN, ZERBITZUETAN, DATUEN HONDAKETA EDO GALERAN, DATUAK BIDALTZEKO EDO JASOTZEKO EZINTASUNEAN, HIRUGARRENEN GUNEETAKO EDO PROGRAMETAKO EDUKIAN (KODEA BARNE), ETA (II) KONTRATUA, BERMEA, GARANTIA EDO BALDINTZAK URRATZEAGATIKO ERREKLAMAZIOETAN; ERANTZUKIZUN HERTSIAGATIKO, AXOLAGABEKERIAGATIKO ETA BESTE ERRUZKO KALTEENGATIKO ERREKLAMAZIOETAN; ESTATUTUA EDO ARAUAK EZ BETETZEAGATIKO ERREKLAMAZIOETAN; BIDEGABEKO ABERASTEAGATIKO ERREKLAMAZIOETAN, EDO EDOZEIN LEGEZKO TEORIAREN MENDEKO ERREKLAMAZIOETAN.

KONTRATU HONETAKO KALTEEN BAZTERTZEAK ETA KONPONBIDE-MUGAK APLIKATUKO DIRA NAHIZ ETA ZUK KONPONBIDERIK EZ IZAN (SOFTWAREAREN LIZENTZIA “BERE HORRETAN” EMATEN DA); NAHIZ ETA KONPONTZEAK, ORDEZTEAK EDO DIRU ITZULTZEAK (TOKIKO LEGEAK HALA AGINDUTA) IZANDAKO GALERAK GUZTIZ EZ KONPENTSATU; NAHIZ ETA FABRIKATZAILEAK EDO MICROSOFT-EK KALTE HORIEK GERTA ZITEZKEELA JAKIN EDO JAKIN BEHAR IZAN, ETA NAHIZ ETA KONPONBIDEAK BERE OINARRIZKO HELBURUA EZ BETE.

Gailuak bermerik duen jakiteko, jarri gailuaren fabrikatzailearekin harremanetan.